

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Inazio Arregi Berriozabal

*Legutio, Araba
(1934)*

Aurkibidea



Biografia



Legutioko Goikuri kalean jaio zen. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Sandurdi baserrikoa. Inazio umea zela, etxetik alde egin behar izan zuten, gerra zela-eta. Aita EAJko zinegotzia zen Legution, eta frankistek oso gaizki tratatu zuten. Albinako Albinabea baserriko zaintzaile modura joan zen familiarekin. Baserria Albinako urtegiaren urpean geratu aurretxoan, Albinagoia izeneko baserria izango zena eraiki zuen ugazabak uraren maila baino gorago, baserri zaharraren harriak erabiliz. Albinan hezi zen Inazio, artzain, urdezain, basomutil eta beste baserriko lan guztietan jardunda. Hamalau urterekin Urrunagako urtegia eraikitzen ari zen "Construcciones Civiles" eraikuntza konpainian hasi zen lanean elaktrikari bezala. Elaktrikari lanetan jardun du bizi guztian. Azken 30 lan urteak Eibarren jarri zuen "Iñaki Arregi Electricidad del automóvil" tailerrean eman zituen. Otxandioko Maria Teresa Oruerekin ezkondu zen Eibarrera, eta bertan jaio ziren euren hiru seme-alabak. Arabako urtegien eraikuntzari buruzko hainbat gauza azaltzen ditu: preso alemaniarrak bertan lanean; ikusten zen ustelkeria ikaragarria; eraikuntza lanen zehaztasunak, etab. Inazioaren seme Joseba ere egon zen elkarrizketan.

Zintak

LEG-030

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2011-02-02

- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

LEG-031

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2011-02-02
- **Iraupena:** 27 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Eskola garaiko kontuak

- **Erref:** LEG-030/002
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:03:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskola garaiko kontuak. Txikitan, neska-mutilak gela berean egoten ziren. Zortzi-bederatzi urterekin eraikinez aldatzen ziren, eta neskek eta mutilek banatuta ikasten zuten. Eskolak non zeuden azaltzen du.</p>

2. Mairuen etxean karlisten kartutxoak

- **Erref:** LEG-030/004
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:05:13. **Bukatu:** 00:06:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

<p>Frontoia dagoen tokian mairuen etxea zegoen eta ondoan hiltegia. Umetan askotan joaten ziren mairuen etxera. Karlisten garaiko kartutxoak batu izan dituzte bertan.</p>

3. Guardia zibilek aita egurtu eta preso hartu

- **Erref:** LEG-030/006
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:06:49. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra garaian, aita behiekin zihoazela guardia zibilek hartu, arbolara lotu eta egurtu egin zuten. Gasteizko kartzelara eraman zuten eta heriotza-zigorrrera kondenatu. Udaletxeko EAjko zinegotzia zen. Langile-batailoietan izan zuten Gasteizen presa bat egiten.

4. Etxea konfiskatu eta Albinara

- **Erref:** LEG-030/007
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:10:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Aita gerra garaian preso hartu zuten. Kartzelatik irteterakoan dena apurtu eta konfiskatu zenez, Albinara joan ziren. 1938tik 1942ra arte egon ziren han, urtegia egin zuten arte. Albinara joaterakoan, lau urte zituela, ama hil egin zitzaian.

5. Hamar urtegaz artzain

- **Erref:** LEG-030/008
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:10:17. **Bukatu:** 00:11:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra garaian Albinara joan ziren ihesi. Han ere baserriko lanetan aritu ziren. Bien bitartean Legutioko etxea hutsik egon zen eta ez zieten uzten ezta hurreratzen ere. Albinan zeudela, hamar urte zituela, Jarindo aldera joaten zen ardiekin 80-100 buruko artaldea gobernatuz.

6. Gerran hildakoen gorpuak aurkitu zituenekoa

- **Erref:** LEG-030/009
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:11:17. **Bukatu:** 00:13:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Jarindo mendian artzain zebilela, handik hurbil, 1944 urte inguruan, gerran hildako batzuen gorpuak aurkitu zituen arropak, uhalak, pistolak... aldean zituztela. Ilara batean zeuden gorpu danak, fusilatutakoak zirela uste du.

7. Albinako baso ugariak

- **Erref:** LEG-030/012

- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:16:16. **Bukatu:** 00:17:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Albina inguruan zuhaitz handiak zeuden (pagoa, haritza...) eta bertako egurra gauza askotarako erabiltzen zen. Aizkora eta trontza erabiltzen zuten zuhaitzak bota eta ebakitzeko. Trenbideko errailak egiteko erabili zuten bertako haritza.</p>

8. Albinako taberna

- **Erref:** LEG-030/014
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:18:26. **Bukatu:** 00:19:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Gerra garaian Albinara joan ziren ihesi. Han bizi zirela, hango etxean taberna zuten. Jaten ere ematen zuten eta bertan lanean zebiltzanak lotan ere gelditzen ziren, kortan zuten horretarako tokia.</p>

9. Eskolako zigorra

- **Erref:** LEG-030/016
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:19:37. **Bukatu:** 00:20:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

<p>Umetan ez ei zekien gaztelania askorik. Eskola ondoan zuten frontoian 'Cara al Sol' abestu behar izaten zuten, baina ez zienez uzten euskaraz egiten berak ere ez zuen hori abesten. Ondorioz, zigortu egiten zuen maisuak: belauniko besoak zabalduz entziklopediak heldu eta erregelarekin jo.</p>

10. Urtegiak egiten hiru enpresa

- **Erref:** LEG-030/020
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:22:37. **Bukatu:** 00:24:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>14 urte bete orduko hasi zen lanean. Albinatik bizikletan joaten zen ia Ubideraino, bertan baitzegoen tailerra. Urtegia egiten hiru enpresa aritu ziren eta horietako bat zen Inazioarena.</p>

11. Preso alemaniarrekin urtegia lanean

- **Erref:** LEG-030/021
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:24:31. **Bukatu:** 00:26:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

<p>Urtegia egiten hiru enpresa aritu ziren. Horietako batean Inazio elektrikari lanetan ibili zen. II. Mundu Gerraren ondorioz Langraitzen preso zeuden alemaniarrek ere aritu ziren lanean berarekin. Bertan zeuden barrakoi batzuetan egiten zuten lo. 19 urte ingurukoak ziren alemaniarrek eta Inaziok 13 zituen.</p>

12. Urtegiko lanetan talde-arduradun

- **Erref:** LEG-030/022
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:26:32. **Bukatu:** 00:27:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Urtegia egiten zebilen enpresa batean hasi zen 13 urte zituela lanean eta 17 urtegar talde-arduradun izendatu zuten bera. Lur azpian egiten zuten lan eta tunelak dinamitaz beteta apurtzen zituzten. Goitik beheraino doan zortzigarren igogailuak 108 metroko altuera du.</p>

13. Lur azpiko ur-tunelak egiten

- **Erref:** LEG-030/024
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:29:38. **Bukatu:** 00:33:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Legutiotik Barazarerraino eta Urrunagatik Uribarriraino lur azpitik ibili izan da Inazio uraren kanalizazioa egiten. Lur azpiko tunelek 4,5eko diametroa dute. Jende asko hil zen hor lanean, egoera eskasean egiten zuten lan-eta. Beharrian askoko jende zebilen lanean. Hiru enpresa aritu ziren lanean, beraienean bostehundik gora.</p>

14. Asteko 4.5 pezetako jornala

- **Erref:** LEG-030/025

- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:33:18. **Bukatu:** 00:34:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Urtegi urak Bilbo eta beste hainbat herri hornitzen ditu. Inazio horietako lur azpiko tunel batzuk egiten aritu zenean, asteko 4.5 pezetako jorrala zuen. Baserriko lanak ez zituen gustuko.</p>

15. Makiak

- **Erref:** LEG-030/027
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:35:37. **Bukatu:** 00:38:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Alemaniarren alde edo kontra ibiliak

Laburpena:

<p>Gogoan du makiak ibiltzen zirela handik. Behin makiei emandako "susto" bat kontaktzen du.</p>

16. Soldadutzan Madrilera lanera

- **Erref:** LEG-030/031
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:48:37. **Bukatu:** 00:50:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzan zeudela boluntarioak eskatu zituzten Madrildik Leganeserainoko bide militarra egiteko. Sarjentuagaz ez zenez ondo moldatzen, joatea erabaki zuen. Hango lana zein zen ikusi zuenean, segidan damutu zen.</p>

17. Txerrizain lanetan

- **Erref:** LEG-030/033
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:59:36. **Bukatu:** 01:00:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>109 txerrigaz txerrizain ibili zen. Ez zen erraza horiek gobernatzea.</p>

18. Alemaniarren kanposantua

- **Erref:** LEG-031/005
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:06:22. **Bukatu:** 00:07:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Urbina gerran hildakoen alemaniarren kanposantua zegoen.</p>

19. Prostitutak jorna kobratzerakoan

- **Erref:** LEG-031/010
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:16:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Aisia » Taberna giroa » Putetxeak

Laburpena:

<p>Urtegiko uren kanalizazioan lanean zebilela, jornaaren likidazioa hiru hiletik behin izaten zen. Bilbotik zetozen prostituten 40 auto inguru heltzen ziren bertara, langileek jasotako diru usainaren atzetik.</p>

20. Pilotan ortozik, oinetakoak ez apurtzeko

- **Erref:** LEG-031/012
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:21:52. **Bukatu:** 00:23:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Garizuman txirikolan aritzen ziren jolasean. Pilotan ez zuten oinetakorik erabiltzen, apurtzeko beldurrez; ondorioz, galtzak kendu eta ortozik jolasten zuten. Pilotan aritzea asko gustatzen zitzaionez, domeka askotan bazkalordua jolasten pasatzen zuen etxekoei gezurra esanez.</p>

21. Ahateak mozkor

- **Erref:** LEG-031/013
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:23:33. **Bukatu:** 00:25:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Etxean ahate txikiak zituzten. Behin, ez ziotenez kasurik egiten, ardoa eman zien.</p>

Arregi Berriozabal, Inazio | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com